

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, 2023KO MAIATZAREN 28KO BATZAR NAGUSIETARAKO HAUTESKUNDEEN TXOSTENARI BURUZKOA. HAUTESKUNDE-KONTABILITATEA.

Joan den azaroaren 30ean Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkurak gehiengoan botoarekin onartu du 2023ko maiatzaren 28ko Batzar Nagusietarako hauteskundeei dagokien hauteskunde-gastuen kontabilitateari buruzko txostena. Txostenari Osoko Bilkurako kide batek boto partikularra jarri dio.

Txostenak ondorioztatu du hauteskunde horietara aurkeztutako alderdi politikoen zuzentasunez bete dutela indarreko legeria hauteskunde-gastu eta -finantzaketa gaitan, nahiz EH-Bilduk kontabilizatutako hauteskunde-gastuek eta prentsa eta irratiko gastuek horietarako ezarritako mugak gainditu dituzten. Txostenak ez du alderdi horrek aurkeztutako kontabilitateari buruzko iritzirik eman, akatsak atzeman baititu haren barne kontroleko sisteman.

Halaber, Txostenak dio udal-hauteskundearen eta alderdi politikoen kontabilitatearen fiskalizazioa egitea Kontuen Epaitegiari dagokiola. Ezin egiaztatu izan da kontabilitate horietan barne hartutako hauteskunde hauei dagozkion gastuak. Gainera, ez da aztertu aurkeztutako kontabilitateez beste edota Hauteskunde Batzorde Probintzialei jakinarazitako hauteskunde-kontu korronteez beste ba ote dagoen erregistratutako ordainketa eta kobrantzarik.